


Baialeike

Maiaiko herri aldizkaria. 26. zenb. 1996ko uztaila. 100 pzta.



Abuztuan
itxita!!
Oporretara goaz!

EHUren ikerketa bat kirol portuaren aurka

Ze berri?

Udala ados
larrialdi
zerbitzuaren
mozioarekin

Kirolak

Telmodeunak
Paterninaren
hiru urterako
babesa jaso du

Festak


San Pedrotako
argazkirik
kurioxoenak bi
orrialdetan

Oikiako gazteek
utzitako argazkia



OILASKO BILTZEN

1960 inguruan San Bartolometan oilasko biltzen ibili zen oikiarren taldea degu hau. GOIAN ezkerretik hasita: Iparreneko Luis, Errementeiko Martxiel, Epiolako Eusebio, Ezkazabalgo Jexus, Pikaondoko Joxe Mari eta Goiburuko Patxi. BEHEAN ezkerretik hasita: Errementeiko Angel, Txabolako Luis, Epiolako Angel, Errotaberriko Joxe Mari, Pikaondoko Inaxio eta Loreko Joxe.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 kutxa

fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

GEG, Natur taldea,

Miriam Romatet, Aintzane eta

konpainia, Kepa Aizpurua,

Imanol Manterola, Jon

Manzisor, Dani Carballo, Josu

Egaña eta Arantxa Eizagirre,

Ainhoa Iturbe, Mattin, Ander

Hormazuri, Itsaso Urruzuno,

Igone Korta, Nerea Unanue, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Urteurrena
**Baleiketxouak
arrakasta
izan zuen**

....9. or.



Natura
**Aquarium
bat
institutuan**

...18 or.



Izerdi patsetan
**Triatloia
ikusgarria
izan zen**

.... 24. or.

Nola da posible...

Nola da posible pertsona bat ikusi nahi ez, kalera atera eta minutu erdira muturren aurrean egotea. Eta alderantziz, orain dela bi urte bi diska utzi zenizkion "lagun" hori ez ikustea ezta kasualidadez ere.

Juan Luis
Romatet "Kattan"



Nola da posible behingoz hondartzara joan, eta hau hutsik egonda, bi ume nazkante eta mukitsu ondoan palaz jolasten hastea. Gero *malaletxe* haundikoak omen gara; nor ez da *malaletxe* haundikoa pilotak buruan zortzi aldiz jotzen badizu eta liburua, walkmana eta arropa guztiak hondarrez beteak uzten badizkizute.

Nola da posible zinemara joan eta eserlekuen % 99a hutsik daudela, betiko tipo buruhaundia patata, palomita eta beste hainbat txutxeriaz beteriko zorro zaratatsuekin armaturik, nire aurrean eseritzea, eta gainera geldirik ez egotea.

Azkenik, nola da posible diru sarrerarik gabeko langabetu batek tren txartelaren prezio osoa ordaindu beharra, eta pentsio eder bat kobratzen duen jubilatut batek (ez dut generalizatu nahi, baina kasuak, egon, badaude) 30 pezta besterik ez ordaintzea.

Nola da posible...



**PREMIAZKO
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44


ZER GERTATU DA ZINE FORUMAREKIN?

Orain dela urte erdi inguru, zine forumaren azken saioa izan zen Aita Mari zineman. Diru arazoak zirela eta, eta beste irtenbide batzuk bilatu bitartean, harekin amaitzen zen zinema «ezberdin» bat ikusteko aukera. Bertan, aurretik Zumaian ikusi gabeko pelikula komertzialak ikusteko aukera izan zen ("Los amigos de Peter", "Malcolm X", etab.), eta baita ere guretzako hain arraroak eta ezohizkoak diren herrialdeetakoak ere (Kanada, Taiwan, Zelanda Berria). Noski, saio haiek defizitarioak ziren, baina, kultur ekintza (ia) denek ez al dituzte diru galerak sortzen? Esaten zuten baita ere jende gutxi joaten zela pelikula hauek ikustera. Bai, esan liteke joaten ginenok familia bat osatzen genuela, baina nahikoa zen kartelean ipurdi bat agertzen zen pelikula bat jartzea (nahiz eta filme benetan txarra izan) jende ugari joateko hau ikustera. Zine forumak iraun zuen denboran, filme onak, txarrak, maixu lanak, denetik ikusteko aukera izan zen.

Saioak amaitu aurretik, hurrengo denboraldirako dirua lortzeko beste aukera batzuk aztertu ziren. Bilera hoietan pelikulak merkeago nola lortu, federazio batean sartzea, aukera denekin jokatzeko zen. Baina, badira 6/7 hilabete ez dela bilerarik izan eta hurrengo denboraldia laister izango dugu gainean. Zumaian zine forumik izateko asmorik ba al dago?

Zinezale bat
(NA 44.121.944)

GUTUNAK



Atal honetan zumaia-ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, baina kontuan izan orrialde batekoa baino laburragoa izatea komeni dela laburtu beharrik izan ez dezagun. Ezizenarekin sinatu daitezke gutunak, baina beti ere egilearen identitatea zein den jakinarekin gainean egon beharko degu.

NONDIK ZATOZ, EKAITZAK DATOZ

Esaten nuen ba nik nire hitz jarioa murrizta zela! Ikusi besterik ez HBko zinegotziaren erantzuna: orri osokoa eta laburtua izan omen da!

Nire idatziak bi helburu zituen: alde batetik Zumaia-ko Udalaren funtzionamendua adierazi, eta bestetik eta bukaera aldean, demokraziari buruzko galdera batzuk planteatu erantzunik izango zelakoan ("ETA matalos", Txikizioak, arauak ez errespetatzea,...).

Migel Aperribai-ek luze eta zabal idatzi du, Zumaia-ko udalak duen funtzionamendu "ez demokratikoa"ri buruz, baina nonbait "ahaztu" egin zaio bigarren zatia-ri erantzutea, hitzik

ez. Zergatik ote? Beharbada erantzun hau izan da laburtu dioten zatia...

Baina ironia aparte utzita, Migel Aperribai-ek eskeintzen didan erantzun luzea irakurri ondoren, nire gazte denbora, ikasten nabilela, burura datorkit. Hau da, azterketa bateko galdera bati zer erantzun ez banekien, erantzun gabe utzi beharrean, "nondik zatoz, ekaitzak datoza" arena egiten nuen (nahiz eta jakin erantzundakoa galderarekin zerikusit gutxi zuela). Nire ustez, eta errespeto handiz, antzeko zerbait egin du HBko zinegotziak.

Hala ere, amaitu aurretik, ziur naiz HBko zinegotziaren jarioasuna eta neure eskasia aprobetxatu ditzakegula herri honen alde lana egiteko.

Montse Arana.
EAJ/PNVko zinegotzia

ZORIONAK

Zorionak Baleikekoei eta Baleiketxouan parte hartu zenuten guztioi. A ze ekitaldi polita ikusteko aukera izan genuen! (antzerkitik dantzara, txotxongiloetatik musikara, txisteak...). Gainera ikuskizun guztia zumaia-arekin egina zen eta hori ez da seinale makala.

Ea datorren urtean beste "txou" polit bat prestatzen duzuen. Bitartean hilero-hilero errebista ateratzeko animoak, Zumaian egiten den kultur ekintzarik popularrena eta interesgarriena baita.

Besarkada bat.

Miren
(NA 72.440.644)

BELARDENDA SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

ITZURUN KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA



Mekanika eta karrozeria

Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaia



**Joxe Joakin
Aizpurua**

HERRIA ETA HIZKUNTZA

Bai, badakit titulu hori irakurrita, Mikel Laboak Xalbadorren bertsoez landutako kantua etorriko zaizue gogora, baina gaur ez dizuet hortaz hitz egingo, bi horien nolabaiteko loturari buruz baizik. Gai horren inguruan hausnartzeko, agian, bertso horiek irakurri eta gauzak garbiago edukiko dituzue, baino, gehiegi luzatu gabe, joan nadin harira. Herriaz eta hizkuntzaz mintzatzerakoan, nere ustez, euskalkiei buruz gogoetak egitea ezinbestekoa da, eta nik, Eibarko euskeraz hitz egiten denean, hizkera hori aipatzen dutenenan, aldrebesa, kaskarra edo baldarra dela esaten dute askok, baino, nere iritziz, hitzen inguruan behintzat badu aberastasun moduko bat, bertako batek kontatu zidanez behintzat. Hauxe da hari entzun niona: garai bateko euskal presoek joko bat asmatu omen zuten. Oso ezaguna ez zen hitz bat atera edo aurkeztu behar zuten bakoitzak, besteek hitz horrek zer esan nahi zuten asmatu behar zutelarik. Beti eibartarrek irabazten omen zuten. Ez al da adierazgarria? Eibartarren batek lerro hauek irakurtzen baditu, eskertuko dizkidala espero dut.



MANU GARATE

Baleikeri 2. urtemugan

Jaio zinaden egun beretik zu ta ni lagunak gera nahiz eta adin ezberdineko hizkuntza degu berbera gure herriko berri ematen ahaleginean ai zera "zurito" baten balion truke nerekin zaude gainera urtebetetze honetan nator zorionak ematera.

Orain bi urte jaiotakoa bihurtu zaigu landare baina sustraiak ondo errotzen lagundu behar halare gazte talde bat egina dago ordutik lan honen jabe denborarekin iritsi dadin zuhaitz eder baten pare ez det bukatu nahi guztiori eskerronak eman gabe.



OSA
BARNIZATUAK

ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auza lanak
- Europa garbiketa eta lintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak

Zunbillo 4
Tlf: 861407

Larrialdietako sendagilearen alde, herria eta Udala bat eginik

Herritarren artean zeresan eta kezka handia sortarazi duen kontu honek, babes ofizial bat izango du udal korporaziotik. Onartutako mozio horrek hala isladatzen du, eta bere helburu nagusia Osakidetzari larrialdietako zerbitzuen sistema berraztertzea da; posible bada, etengabeko larrialdietako sendagile bat ezartzea.

1991 urtean larrialdietako zerbitzuaren berregituraketa eman zen, baina Zumaiaiko beharrak asetzen ez zituela somatzean, bere ekimen propioa aurrera eramatera behartuta dago. Honen ondorioa da Udalak onartu berria duen larrialdietako sendagilearen aldeko batzordeak aurkeztutako mozioa.

Hau zertan datzan azaldu baino lehen, datu adierazgarri batzuk plazaratu beharra dago: Zumaia, 8.323 biztanle dituen herria, astegunetan arratsaldeko 5etatik goizeko 9ak bitartean eta jaiegunetako 24 orduetan, sendagilerik gabe geratzen da; behar izanez gero, 10 km-ra dagoen Zarautzeko zentzura deitu edo joan behar da, distantziaz gain, 634 errepideak duen arriskuarekin. Edozein modutara, ospitale hurbilena 36 km-ra dago.

Bestalde, Zumaiaiko botiken gaur egungo funtzionamenduarekin,

larrialdiko egoeratan, sarritan Getarira edo Zarautzera joan beharra dago sendagaien bila.

Guzti honen aurrean, aipatutako mozioa onartu da. Osakidetzari eskatzen zaio larrialdietako zerbitzuak berraztertzea, eta errespetatzea arratsaldeko 5ak arte funtzionatzen duten asistentziako gune naturalak.

Udalak kexentzako zerbitzu bat eratu du herritarrek bere salaketak egin ditzan

Mozio honen bidez, Zumaiaiko botikariei ere eskatzea, eskaintzen dituzten zerbitzuak berregokitzea, gutxienik 95a baino lehenagoko egoerara itzultzeko. Udala eta larrialdietako sendagilearen aldeko

batzordeak elkarlanean segitzeko konpromezua hartu da, Osakidetzaren aurrean kexak gestionatzeko, eta azken helburua lortzeko asmoz, hau da, Zumaian larrialdietako sendagilea izatea.


Zentzu honetan, kexa zerbitzu bat sortua dago. **088** telefonora deituz, herritarrek bere salaketak egin ahal izango ditu, sendagilearen zerbitzua denboraz kanpo ematen bada. Une hauetan gehienez ere 25 minutuko epea dute, baina kasu askotan denbora epe hau gainditu egiten da.

Plenoan lortutako akordio hau Osakidetza eta Zumaiaiko botiketako arduradunei bidaliko zaie. Mozio honen erantzuna ezezkoa balitz, Udalak eta larrialdietako sendagilearen aldeko batzordeak hartu beharreko neurriak erabakiko dituzte.



Herritar asko inguratu zen 27an egin zen plenora.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Maiaur
Jolastokia



Jesuskoa
Jatetxea



Aplua 86 17 39 • Cikita - Zumaia

Tirabirak sortu dira Udalaren eta motorazaleen artean



Momentu honetan ez dago estakarik Narrondo ibaiaren ezker aldean.

Narrondo ibaiaren horma sendotzeko lanak aspaldi amaitu ziren, baina honen inguruan sortutako istiluek hor diraute. Izan ere obrak hasi aurretik motorak lotzeko zeuden estakak ez dira berriz ere jarri eta motorazaleak haserre daude.

Proiektua lantzerakoan, eta gerora ere bai, Udalak harreman bat izan du Arbustain motora elkar-tearekin, leku horretan jarriko ziren estaka edo pantalanei buruz hitz

egiteko. Baina lanak aurrera joan ahala arrazoi bategatik edo besteagatik azkenean ez da ezer jarri. Hau ikusi ondoren, elkartekoek errekurtsio bat jarri dute.

Bilera bat baino gehiago egin dituzte, baina uste baino korapilatsuagoa da arazo honen konponbidea. Kontu hau ez baldin bada behar bezela argitzen gaia abokatuen esku uzteko prest agertu da motorazaleen elkarteak. ■

laburrak

Udalaren oharra

Gaztedia Batzordean herritarren proposamenak jakin nahi dira, gazte ekintzekin egitarau bat osatzeko. Horretarako kultur etxera bidal itzazue zuen proposamenak, asmoak... Gero, udazkenean bilera zabal bat egingo da asmo eta proiektuak lantzeko.

Argazki onena Felipe Loiolarena

Felipe Loiola izan da Zumaiako argazki lehiaketaren VIII. edizioa irabazi eta 45.000 pezetako saria jaso duena. **Benito Canterok** 2. saria eta 35.000 pezeta eskuratu ditu. **Fermin Etxeberriak** 25.000 pezeta jaso ditu eta **Luis Llavorik** 15.000, lehen zumaiarra izategatik.

Argazki onenak ikusgai izango dira Forondan hil honen 14a bitartean.

EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

IZETA
orrastegia



Urumea 6
Tlf: 862083

IRIBAR

OKINDEGIA - KAFETEGIA

Tlf: 143361



Gosarietan prezio bereziak

Paki

Belardenda



OSASUN NATURALA

Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

Forondako lanak amaitu dira

Lanei amaiera eman ondoren ekainaren 27an inauguratu ziren Foronda kultur etxeko bi gune berriak: batetik zuhaitz landare eta lore ezberdinak biltzen dituen parkea eta bestetik liburutegiaren goiko solairua. Lanbide Etxeetako 20 neska-mutil

izan dira urtebeteko epean lanik haundienak burutu dituztenak, beti ere irakasle adituen aginduak jarraituz. Urola-Kosta Mankomunitateak bultzatu duen proiektua izan da hau, eta INEM eta Zumaiako Udalaren babesa eta laguntza izan du.



Kanpoan landareak sartzeaz gain bidea ere txukundu behar izan dute.



Horma berriak egin dituzte goiko solairuan.

Parkea ikusteko moduan da dagoeneko, eta banku ugari ditu gora joaten sortutako nekeak arintzeko. Goiko solairuaren antolaketa eta banaketa, ordea, oraindik ere erabakitzeko dago. ■



Oikiako Gorputz Eguneko prozesioa, 1970 ingurukoa. Bentureneko Manuel Ibarbia da sakristaia, Mikel Laskibar apaiza eta Loreko Bartolo palioa daramana.

Oikiako fototeka

Oikiako gazteen ekimenez 400 argazki zahar baino gehiago bildu dira, eta gehienak hartuta, txukun-txukun jarri ondoren, erakusketa bat antolatu zen Ikastola Zaharrean. Oikiar ugari pasa zen bertatik eta erakusketak arrakasta ederra izan zuen.

Baserriz baserri ibili ziren argazkiak eskuratzeko, eta orain interesgarrienak aukeratu eta kopiak ateratzeko asmoa dago. Horretarako Kutxaren laguntza izatea espero dute Oikiako gazteek. ■

Arkupe
 Okindegia
 eta gosariak
 Kale nagusia, 2



ERTZ
 INFORMATIKA
 Udako Ikastaroa
 Uztaila- Abuztuaren
WINDOWS, WORD
 Diseinua, ordenagailu bidez
COREL PHOTOSOP
 Mendaro Mariñela 3, TEL./Fax. 14 33 95




Baleike TXOU arrakastatsua

Ekainaren 27an egin zen jaialdia ikustekoa izan zen. Beheko aldea berehala bete zen eta 60 lagunek goitik ikusi behar izan zuten ekitaldia. Guztira ia 400 ikusle izan ziren, txouan parte hartu zute 85 lagunez gain. Sarreran bertan hasi zen festa, jendeak arku baten azpitik pasa eta antzerkikoen kanta eta txantxak jasan behar izan baitzituen.



Herritarrek egindako lana, herritarrei eskainia.



Herriko txoko ezberdinetan egin zen grabaketa. Lan haundia eman zuen, baina ederki eta gustora ibili ziren denak ere.

Behin barrura sartuta jaialdia hasi zen eta bata bestearen atzetik joan ziren ekitaldi guztiak, guztira 2 ordu pasatxo iraun zuen txoua osatzeko. Denak ere bikain aritu ziren, baina beharbada "Pletorexia" izeneko laburmetraia izan zen gauzarik bitxienetako bat. Asteburu batean grabatutako filmetxo honek Baleike nola egiten den azaltzen du, 22 minututan zehar. Bukaeran jende gehiena zinetik irribarretsu eta gustora irten zela iruditu zitzaigun.

Auto - Konponketak

ELKAR

PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR

Margi

Alai Auzotegia 2.

ZUMAIA

AUTO-ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAIA

AIZPURUA

LIBRERIA

Aita-Mari Auzotegia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA

OPARIAK

Harrijasotzaile
ugari ibili
zen san
pedroak
altza
nahian

Porrobon
pon... pum!
pom! pam! pin!
ra ta tan!
Kriston
sinkronizazioa
erakutsi zuten
tanborradakoek.

Grijando moring...
I can demor. pekador!!
No pueodor. no pueodor...
po' favorrrrr!!!

Festak girotu
zituen helduen
tanborradak

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa
86 21 89



TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57




KABI
TABERNA - ZUMAI
Tfnoa: 143379



*Dultzaineroek ez zuten
inolaz ere lortu Gofix
esnatzerik!*



*Festetan umeek
ere izan zuten ondo
pasatzeko
aukera*



*Joxebitorrrr!! Noa
behitzen dek!!!*



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

Kirol portuaren auzia

EHUren ikerketa batek kirol portuaren aurkako ondorioak atera ditu

94an egindako ikerketa honek paduraren balioa nabarmentzen du*Kirol Portuaren promotoran dago maketa ikusteko aukera.*

Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek 94an egindako ikerketak dioenez, Santixoko padura balio handiko naturgunea da, eta bertan egin nahi den kirol portuak eragin zeharo kaltegarriak eragingo lizkioke. Gainera, padura hazten ari da, eta bertan bizi diren animalia eta landare kopurua asko ugalduta da 83tik hona. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak eskaturiko ikerketa izan zen 94ko hau.

Ikerketa hau 1994an burutu zuen EHUKo talde batek, *Ingurugiroaren azterketa eta berreskurapena* masterraren barnean. Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro sailak bultzatutakoa izan zen eta EHUKo Geodinamika departamentuak antolatu zuen. Ikerlariak, besteak beste, Javier Loidi katedradunaren aholkularitza izan zuten.


Paduraren egoera azaltzerakoan, lan honek aipatzen duen lehen gauza garrantzitsua paduraren lur eremua etengabe handitzen ari dela da. Eta

Padurak balio handia du, baina bere babes bateraezina da kirol portuarekin

lur eremua handitzeaz gain, bertan bizi diren animalia eta landareak asko ugalduta direla. Konklusio honetara iristeko, ikerlariak Javier Loidi katedradunak 1983an egindako beste ikerketa batean ateratako datuak erabili dituzte. Biak konparatzerakoan, Santixoko padura hazten ari dela ikusi da.

Egindako beste ikerketen aldean, honek berritasun interesgarri bat gehitzen du: Santixoko padurak paisaia gisa duen balioa. Hau da, padura naturgune garrantzitsua izateaz gain, paisaia bitxia dela dio ikerketak, kontraste handia baitago inguruko labarren eta honen artean.

Horrela, paduraren egoerari buruz egindako ikerketan honako ondorioak atera zituzten: Lehen mailako garrantzia duen natur gunea da. EAEn oso bitxiak dira horrelako guneak, eta giza presioaren aurrean oso ahulak dira. Bertako eta kanpotik etorritako espezieentzat lehen mailako



NIKOL-ENEAA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tnoa: 860415

Kirol portuaren auzia

Sailen arteko akordio ahalegina kirol portua aurrera ateratzeko

Herrilan eta Ingurugiro sailek batzorde bateratu bat sortu dute, bertan, besteak beste Zumaia kirol portua aurrera atera ahal izateko. Bien arteko akordioa prestatua bazegoen ere, ez da ezagutzera eman sinatuta dagoen ala ez, nahiz eta berez duela hilabete bat sinatu behar zuten. Akordio honen ondorioetan esaten denez, kirol portua balio handia duen padurarekin bateragarria da. Horrela, kirol portuari ateak ireki nahi zaizkio.



Hasierako proiektutik aldaketatxo batzuk egingo dira orain.

Zumaia Bizirik taldeak jakinarazi digunez, bi Sailen arteko akordio hau EAE osorako prestatuturiko planifikazio baten bamean sartzen da. Akordio honen bitartez (gogoratu sinatu gabe egon daitekeela) Ingurugiro Sailak Santixoko padura sakrifikatuko luke, beste naturgune batzuk babestearren, nahiz eta jakin Zumaia kirol portua balio handiko naturgunea dela. Larriena zera da, padura eta kirol portua

bateragarriak direla baieztatzea. Harrigarria da horrelako baieztapen bat egitea, oraindik AZTI enpresari eskaturiko ingurugiroaren gaineko eraginaren ikerketa egin gabe dagoenean, horrelako baieztapen bat egiteko oinarririk ez dutenean.

Zumaia kirol portua aurrera ateratzeko pausoak zehaztuak dituzte, banaka banaka, aurrekoan ez bezala, orain lege arazorik egon ez dadin (aurreko proiektua ez zen onartu legea ez betetzeagatik).

Lehenik kirol portuen inguruko planifikazio orokor bat eskatzen da. Ondoren, interesaturik dauden toki guztiek euren aurreproiektua eta ingurugiroaren gaineko eraginaren ikerketa bidali behar diote Herrilan Sailari. Sail honek Ingurugiro Sailari emango dio dokumentazio guzti hori, honek bere txostena egin dezan. Ingurugiro Sailak kontuan izan beharko ditu egindako alegazio edo proposamen guztiak. Guzti hori horrekin, baimena emango du edo ez kirol

portua aurrera eramateko. Ingurugiro Sailaren baimenarekin bidea zabalik dago Santixoko paduran kirol portua egiteko.

Legeak zehazten duen bide hau kontuan izanda, bi Sailek lehen aipaturiko akordio hori sinatu badute, legea hautsi dutela esan daiteke. Horregatik, Zumaia Bizirik, Eguzki eta EKI-k besteak beste, bi Sailetara eta Gasteizko parlamentura jo dute guzti hau argitzeko eskatuz. ■

bizilekua da. Aldaketa nahiko handia jasan du baina txikia beste toki batzurekin konparatuz.

Emaitza hauekin, bertan kirol portu bat egitearen aurka azaltzen dira ikerketaren egileak, hainbat

arrazoirengatik. Lehenik esaten dute naturgune hauek oso ahulak direla giza jardueraren aurrean.

Kirol portu bat eginez gero, paduraren lur eremua ikaragarri gutxituko litzateke, honek kalte

handiak eraginez. Gainera, etengabe urez beteta egongo denez, bertan bizi diren animalien elikatzeko ohiturak zeharo aldatuko dira. Ingurugiro hezkuntzarako, turismo berdearentzako eta beste zenbait

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

Santixoko padura handitzen ari da eta bertan bizi diren espezieak ugaltzen

jarduerentzako oso garrantzitsuak diren baliabideak galduko dira betirako. Kutsadura ere handia izango da eta paisaia beraren gaineko eragina kaltegarria.

Hauek eta beste eragin kaltegarri batzuk aipatzen dituzte, eta balorazio hauen oinarrian naturguneen babesa eta Zumaiaren garapena daude. Beraz, kirol portuaren eragina naturgune honengan zeharo larria izango da, paisaia asko aldatuko da eta giza presioa ere jasangaitza izango da padurarentzat.

Ikerketaren azken konklusioak

Bateraezinak dira paduraren babesa eta kirol portua. Bata edo bestea aukeratu beharra dago. Lehen padurak zituen beste guneak berreskuratzea komenigarria da. Padurak eskeintzen dituen beste aukera batzuk ere aztertu beharko lirake. Hala nola, ingurugiro hezkuntza, ikerkuntza arloa, turismo berdea, e.a. Beste aukera hauek gutxienez kirol portuak ekarriko lukeen adinako garapena ekarriko luketela deritzote ikerlariak.

Ikerketa honen emaitzak oso ezberdinak dira orain arte ezagutzera eman diren beste ikerketekiko. ■



Azken urteotan asko ugaltu dira padurako landareak.

Getaria, Ondarroa eta Plentziako kirol dartsenetako prezioak oso garestiak dira

Zumaia Bizirik-ek gonbidaturik, joan den hilabetean Getaria, Ondarroa eta Plentziako itsas elkarteak izan ziren Oxfordeko mahainguruan, euren esperientzia ezagutarazteko. Itsas Elkarte hauek euren herritako kirol portuekin izan duten esperientzia ez da batere pozgarria izan. Plentzia eta Getariakoek adierazi zutenenez, "kirol portuak oso egokiak dira kanpotarrentzat, baina ez bertakoentzat. Etxekook ez ditugu gure motorentzako hainbeste zerbitzu behar". Zerbitzu hauek asko garestitzen dute amarrea. Gehientzat gehiegi da. Ondoren, herri hauetan ordaintzen diren prezioak doazkizue. Eredutzat txibitarako untzia hartu da:

Plentzia

17,8m²ko untziak, urtean 130 mila pezeta ordaintzen ditu. Urtero izugarri hazi dira prezioak

Getaria

Txibitako untzi batek iaz 195.612 pezeta ordaindu zituen. Enpresak 33 milioi irabazten ditu

Ondarroa

Hemen portuaren gestioa elkarteak berak darama. Horregatik %15eko beherapena dute

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

kukutz

PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA



*KAMISETAK
*KAPELAK
*TXISKEROAK
*TXANDALAK
*PAPELEZKO
POLTSAK

Baltasa Etxabe 7 Tfnoa: 860569

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia



**AINHOA
LETURIONDO**

Itzurun gehiago gustatzen zait. Nere ama eta denak ere hara joaten dira. Gainera, Itzurunetik hurbilago bizi naiz Santixotik baino. Olatuekin bainatzia ederragoa da.



ISAAK ARANBERRI

Garbiago da eta herriko jende gehiago biltzen da Itzurunen. Giro hobia dago, eta Santixo gainera kontaminatuta dago.



**MARIA DOLORES
AIZPURU**

Ni Itzurunera joaten naiz. Halare txikitan barkuan nere ilobakin eta juten nintzan Santixoa. Baina iodo asko dauka Itzurungo urak eta hori ona da nik bezela barizak dauzkatenentzat.

Santixo edo Itzurun?



MIKEL AIZPURUA

Itzurunen ambiente gehiago dago. Gainera ura garbiagoa da eta herritik hurbilago dago. Olatuekin dibertitu egiten naiz eta itsaso barearekin aspertu.



IMANOL ULACIA

Itzurun hobeto dago. Santixo erriyuakin txerrikeri bat eginda dago. Itzurun garbiagoa da baina aurtan hala ere nahiko zikina dagoela usten det.



**MADDALEN
ODRIOZOLA**

Itzurun nahiago det. Nere etxetik hurre dagolako juten naiz baina ez daukagu toldurik. Ez dakit nun dauden sokorrista hobiaguak. Okerrena da maria igotzen dela eta orduan etxera juten naiz.



**MARIA DOLORES
AZPIAZU**

Ni beti Itzurunera juten naiz. Olatu gehiago dago. Bandera berdea dagoenean nahiago det Itzurun, ze aspaldiko urtietan oso ondo dago. Guk 20 urte baino gehiago daramatzau etortzen gerala Zumaira, asko mejoratu da eta oso ondo dago.



ANDONI MARTINEZ

Itzurun nahiago det ze jende gehiago juten da eta famosua da. Gainera olatuak onak dira eta lagun guztiak hemen elkartzen gera.


ARRAIN ETA
MARISKOAK

7

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK





7 MARES IZOZTUAK





JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853





A.H.

Zumaiako Aquarium txikia

Aurten laugarren urtez Zumaiako Institutuan akuario ikusgarri bat jarri dute martxan. Behar den bezela prestatu eta itsasertzeko ekosistema bat montatu dute bertan: algak, ixkirak, abakantua... Ondo irteten zuela ikusita, beste gauza bat probatu dute: ugalketa. Biberoren bat jarriko ote dute laster?

REM-IEEko 1. zikloko zientzia esperimentalak lantzeko antolatu izan da esperientzia hau, eta pixkanaka hobetzen joan dira. Lehenbizi ura jarri zuten (400 litro) eta hau analizatzeko tresna egokiak montatu ere bai. Horrelako ekosistema bat montatzean arazo asko azaltzen dira eta gauza asko hartu behar dira kontuan: temperatura, pHa, dentsitatea, salinitatea, amonioa, nitratoa, nitritoa, oxigenoa...

Arazoetako batzuk konpontzeko filtro biologikoa jarri dute azpian; bertan bakteriak ugaltzen dira eta hauek animaliek botatzen duten amonioa (kutsagarria) nitrito bihurtzen dute, eta beste batzuek nitritoa nitrato. Hau ez da hain kutsagarria eta landareek hartzen dute. Argia ere foto-periodo naturala jarri dute, kanpoan zelula foto-elektroko bat jarri da eta eguna luzatu ahala barruko argia ere aldatu egiten da.



Urak analizatu eta dena ondo neurtu behar izaten da.



Laboratorioko gela batean dago 400 litroko akuarioa.

Ekosistema montatzea lortu ondoren, beste gauza bat probatu dute: UGALKETA. Akuario txiki batzutan jarri emeak eta arrautzak egindakoan ontzi batzuetan ezarri zituzten larbak. Hauen elikagai nagusiak artemiak (krustazeo txiki batzuk) eta mikroalgak dira. Artemiak oxigenadore txiki batekin prestatzen dira eta mikroalgak, berriz, 4 litroko ontzi batzuetan lantzen dira, Kimikako sailekoekin elkarlanean. Otsailean hemen izan ziren irlandarrek erakutsi zien teknika erabiltzen dute institutukoek. Aurten ezin izan dute fosfatoa kontrolatu eta noizean behin 100 litro ur aldatu behar izan dituzte.

Mikroalgak jaten hasten direnean ugalketa zikloa bete dela esan daiteke, eta ixkirekin hala lortu da. Ixkira eta abakantu edo solaixuarekin aritu ondoren, orain ostarrenarekin saiatzeko asmoa dute, baina hau lortzea zailagoa izango da.

Aumento haundiko mikroskopio baten bidez, gertatzen diren gauza aipagarri guztiak ikusi eta bideoan grabatzen dituzte, gero pantailatik errezago ikusteko: arrautzak nola mugitzen diren, larbek nola irtetezen duten...

Esperientzia hau oso interesgarria da ikasleek teorian ikasten dutena praktikan ikusteko, eta Biologia eta Kimika kontuak lantzeko espeziala da. Honekin errezago uler daiteke ekosistema baten konplexutasuna

Aurten oso gustora geratu dira Inaxio Manterola eta bere laguntzaile guztiak, eta ahal izanez gero akuarioa udan mantentzeko asmoa dute. ■

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
 Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
 Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
 ZUMAIA

AXIER KIROLAK
 Ortega y Gasset, 2
 ZUMAIA
 Telefonoa: 862206

ARGIA

 Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
 ZUMAIA

Fantasma masturbatorioak

Plazerraren munduan pertsonaia nagusiak izaten diren masturbazioa eta bere ondorio lagungarriak ezagutu nituen.

Hori bai mundu gozatsua! Eta hala izanik, pertsonaia horiek ezagutzeak norbera bere historia zoriotsuaren kreatzaile bihurtzen du.

Baina esan didate FANTASMA MASTURBATORIOAK ere agertzen direla zenbait istoriotan. Nik badakit fantasmek beldurra ematen dutela; goazen orduan izare zuria kendu eta barruan agertzen denarekin jolastera. Fantasmak dira beraien beldur bagara, zerbait txarra eta lotsagarria iruditzen bazaigu gure istorioan agertzea, beraiekin jolastu beharrean kanporatu eta baztertzen badira. Eta gainera itxura obsesibo bat har dezakete, itxumustutako, frustratutako eta erreprimitutako beste desioen modura.

Baina hauek jolasaren bidez onartu eta landuz gero, fantasma hauek pertsonaren bizitza sexuarentako oso aberasgarriak izan daitezke, bakoitzaren historiaren bitartez plazerraren mundua aurkituz.

Fantasmak istorio horren protagonista eginez gero, amodioa egiteko eta bere funtzio sexuala betetzearen sostengu izango dira bizitza osorako.

Fantasmaren gorputza zer izango ote da, txarra ala ona? Hori galdetuz gero, balore moraletan sartzen dira fantasmak. Eta fantasmak bakarrik bakoitzaren historiaren protagonistak izanik beraiekin gustora jolastea da gure nahia.

Zer? Nola?

Pentsa fantasmaren izarearen atzean gizon bat bere emaztearekin larrua jotzen agertzen dela. Hau fantasma ona al da? ... Ja, ja. Edo ogia erosten diozun neskari sodomia egiten diozula azaltzen da. Hau txarra al da?... Beno, beno.



Denok dakigu fantasmaren tokia kulturalki eta moralki ukatutako munduan ezartzen dizkigutela. Bai, imajinazioaren munduan. Baina nola gustatzen zaigun hauekin jolastea! Dударik gabe ezarri dizkiguten koakzioetatik askatzen gaituzte. Imajinazioan dena onartua dago, eta hau gure sortzaile flipanteena da. Honek bai sortzen dituela umeak!

Dударik gabe fantasmekin jolastea, zure historian nahi dituzun gauzak imajinatuz, atsegina da. Baina hauek errealitateara trasladatzea ezberdina da. Hau oso ongi uler daiteke, fantasma bat, batek dakien modura egiteko kapazitatea ez duen ekintza baten irudikapen mentala delako. Honela jende gehienak ditu

fantasmak eta gainera sekulako egoera bereziak imajinatzen ditu, baina hauek ez dira inoiz ekintza bihurtzen.

Fantasmek joko sexualaren munduan egon behar dute, baina beste mundu batera pasaz gero, ez dira errespetoa eta bestearen nahia errespetatzen. Beraz, jolastu bai, baina bakoitzak bere imajinazioan.

Beraz, goazen masturbazioaz gure fantasmekin jolastera etxean, mendian, itsasoan eta bakoitzari egokia iruditzen zaion eszenatokian. Honela gure askatasunaren jabe egingo gara zenbait momentutan. ■

Ainhoa Iturbe



GILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Prensa
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Liburuak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Hamasei urte zituela sartu zen arraun munduan. Hasiera batean arrantzuko bateletan aritu zen arraunean, gero bestelakoetan eta patroitzean aritzeko kondizioak ikusi zizkionenez horretan aritu da urte askoan. Bost edo sei

Joxeba Aristi

urteko atsedenaldi baten ondoren berriz ere gogoz ekin zion lanari, entrenatzaile postuari ere helduz. Entrenamendua baino lehenago tartetxo bat lapurtu diogu, aurtengo denboraldiari buruz hitz egiteko.


"Zumaian ez dago afiziorik"

DENBORALDIA ORAIN ARTEAN ZER MODUZ JOAN DA?

Traineriletan parte hartu degu, baina trinauen denboraldirako prestakuntza modura. Ez ziren emaitza oso onak izan, aldaketa asko egin genituelako. Gainontzean Mutrikuko estropadatik oso gustora irten ginen, teknikari eta arraun egiteko moduari dagokionez. Hernanin ere berdina gertatu zen, azken emaitzari ez geniolako hainbeste inportantzia ematen. Elantxoben geure burua neurtu nahi genuen, baina mutil bat kalentamentuan lesionatu zen eta honek planak aldatu zizkigun; emaitza nahiko kaxkarra izan genuen, gainera. Orain hurrengo estropadari begira hasi beharko degu.

LASAITASUNIK EMATEN AL DU PATROZINADOREA LORTZEAK?

Beti antzematen da. Klubarentzat aberastasun handia, burukomin asko kentzen dizkio jendeari, eta guretzako ere oso mesedegarria da, material berria lortuko degulako. Fibrazko untzia ekarriko degu eta besteak dabiltzan trenean sartuko gera gu ere. Orain arte egurrezko 6 urteko untiarekin ibili gera eta horrek burura jo egiten dio jendeari. Ilusio gehiago ematen du material berria izateak.



Hamabost urte inguru daramatza arraun munduan.

HAINBESTE HOBETUKO AL DIRA DENBORAK BA?

Bai. Guk batetik besterako aldea konprobatzeko aukerarik ez degu izan, baina beste klub guztiek lehengo tenporadan fibrazkoa hartu bazuten zeozergatik izango da; seguru bentaja izango duela. Arraunak ere eskatuta dauzkagu; ez esponsor hau etorri delako, bestela ere eskatuta geneuzkan, baita trinaua ere. Arraunak irabazitako premioetatik ordaintzera konprometitu ziren arraunlariak, eta trinaua elkarrekin ordaindu beharko zuen. Orain suertea izan degu.

ZEIN DIRA AURTEN DITUZUEN HELBURUAK?

Aurtengo helburuetako bat dagoeneko eginda dago: Telmodeun uretan ikustea. Hiru urte oso txarrak pasa ditugu eta denborale horri ihesten jakin degu. Momentu txarrak ziren, gaizki ibili gera sentidu guztietan, eta horregatik helburuetako bat unzia uretan ikustea zen.

"Arrauna espektakulu bezela galtzen ari da, eta kulpa denen artean banatu behar da"

Helburuak ametsak dira askotan. Konsziente gera zer tripulazio dauden, jende gutxi gaude eta jakinaren gainean zer potentzial daukagun badakigu zeregin haundirik ez dagoela. Baina geure helburuetako bat arraunean kurioso egin gutxienez eta Telmodeun oraindik hor dagoela erakustea da. Helburu haundiena, ametsa, Kontxan egotea da; badakigu ia ezinezkoa dela, baina ezingo degu alde batera utzi eta ahaleginak egingo ditugu. Beste helburu bat, ahal izanez gero, Euskal Ligan sartzea da.

NOLA ERABAKIKO DIRA LIGAKO PARTAIDEAK?

MATE

ILEPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Eribera Kalea, 4
Telf. Fax 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategi, 10 behe
Telefona: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Aurrena herrialde bakoitzean kontra-relojean lehen hirurak zuzenean sartuko dira. Gainontzekoek denek batera jokatu dute beste kontra-reloj bat, beste bost postuak erabakitzeko.

NOLAKO PLANTILA DAGO AURTEN?

Hamasei lagun gaude eta oso juxtu ibili gera. Orain bi fitxaketa egin ditugu; ondarrutarrak dira, eta arnas pixka bat ematen digute mutil hauek, bai aldaketak egiteko, baita entrenamendu egokiak egiteko ere. Askok errelebotan egiten degu lan, eta astean zehar denok batera entrenatu ezinean ibili gera, uretara joateko untzia osatu ezinik.

"Aurtengo helburutako bat beteta dago: Telmodeun uretan ikustea"

NOLA DAGO ARRAUNAREN EGOERA OROKORREAN?

Analisia egitea zaila da, baina nere ustez arrauna galtzen ari da, espektakulu bezela. Kulpa denen artean banatu behar da: antolatzaileak, federazio, klubak... Lineako estropadak ikustea zaila da gaur egun eta kontra-relojak ikusten aspertu egiten da jendea eta ez da joaten. Lineako estropadak ikusteko txapelketetara joan beharra dago. Gaur egun ez da herri arteko grina lehen bezela bizi, gero eta arraunlari gehiago daude, kalendarioa saturatuta dago eta afizioa galtzen ari da.

ZUMAI A MAILAN ERE GALDU EGIN AL DA AFIZIOA?

Zumaiak nere ustez ez du sekula afiziorik eduki. Zumaiak bere garaian fanatismo bat eduki zuen. Garai onak



Aurtengoan ere Telmodeun Joxeba berak gidatuko du.

izan ziren, urte bat oso ona izan zen eta herri dena atzetik genuen. Hori taldea goian zegoelako zen, ordea; behean dagoenean behar da hemen benetako afizioa, eta askok hala demostratu dute, eta hemendik eskertu nahi diegu momentu txarrenetan lagundu diguten guztiei.

URTE BATZUTAN UTZIA IZAN DEZU ARRAUNA. ZERGATIK HASI ZINEN BERRIZ ERE?

Gogo faltarik ez det inoiz izan, baina bizitza ez da arrauna bakarrik. Etxe ingurua oso abandonatuta geratzen da arrauna dela medio, dedikazio haundia eskatzen duelako. Behar haundia zegoela ikusi nuen eta berriz ere hasi nintzen lagundu nahian. Patroi eta entrenatzaile aritu naiz orduzkerok.

AURTEN ERE PATROI ARITUKO AL ZERA? Momentuan Antxon Laskibarren

laguntza degu, hark unzia daraman bitartean neuk fuerabordatik gauzak hobeto ikusteko aukera daukatelako. Baina aurtan behintzat neu arituko naiz patroi lanetan. Hurrengo urtean igual Antxonek hartuko du postu hau.

ZEIN DA AITA MARI ELKARTEAREN ETORKIZUNA?

Ez dakit, lehen esan bezela bajatu egin da arrauna. Itxura denez jendeak ikusten du kirol sufritua dela eta gazteak ez dira hona inguratzen. Bueltatu nintzenean nere helburuetako bat hemengo atea zabaltzea zen, baina jendeak ez du espero bezela erantzun. Hala ere beheko jendea lantzen ari gera infantil, kadete eta jubenil mailan. Azken urteetan ez da jende gehiegi igo behetik, baina espero degu hurrengo urtetik aurrera katea osatuko dela eta gazte-gaztetik hasitako jendeak seniorretan arraunean egiteko aukera izango duela. ■

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -
 EUSKARA-GAZTELERA-
 KATALANA-INGELES-
 FRANTSESA
 Tel / fax: 148065

ekin
 ELEKTRIZITATEA
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 INSTALAZIO MUSIKALAK
 AKUMULADOREAK
 ALARMAK
 ANTENAK
 PORTERO AUTOMATIKOAK
 DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
 TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Telf. 14 34 74
 20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)


Azkue Autoak
 Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
 20750 ZUMAI A Fax: 861067

Telmodeuna ardotan bustita

Paternina izango da datorren 3 urtetan zumaiarren patrozinadorea

Kostata, ondo kostata, baina azkenean Aita Mari arraun elkarteak lortu du babesle ekonomikoa traineruarentzat. Azken denboraldietan hor irauan dute nola edo hala laguntzarik gabe arraunean; orain ordea, nork esango, eta ardo marka batek 3 urterako lasaitasuna emango die zumaiarrei.

Azken urtetako joera ikusita eta gaur egun babesle ekonomiko bat topatzeak dituen zailtasunekin, inork gutxik espero zuen Zumaiako traineruak laguntza hori lortuko zuenik. Baina oraingoan zortea beren alde izan dute, eta datorren hiru urtetan gutxienez, Paternina ardo enpresa izango dute patrozinadore.

Luis Mari Goikoetxea Aita Mari Arraun Elkarteko presidentearen esanetan, "txiripaz aurkitu da patrozinadorea. Fidel Gurrutxaga zumaiarra taberna kontutan aritzen da lanean, eta honen bitartez Paterninako ordezkari batekin hitz egin, konfiantza hartu, eta horrela orain patrozinadore hori degu".

Dena den, presidenteak argitu nahi du, laguntza hau oso garrantzitsua den arren, behar duten guztirako ez dela nahikoa. "Lasaitasun handia eman digu, baina aurreko urtetatik zor handiak ditugu, eta hauek tapatzeko oraindik dexente beharko

degu, bai diru bai denbora aldetik". Izan ere, ez da ahaztu behar azken hiru urtetan babeslerik gabe aritu direla, eta ahal izan duten bezala irten direla aurrera: bazkideen, tailerren laguntzaz, eta herriaren laguntzaz oro har.

Aspirazio berriak

Paterninarekin akordioa 3 urterako da, baina ondoren luzatzeko aukerarekin. "Emaitzak laguntzen badute, eta noski herrian eta Gipuzkoan ardo hau saltzen bada, kontratua luzatu egin daiteke seguruenik".

Luis Mari Goikoetxeak adierazi duenez, ate asko irekitzen dizkie babesle berri hau izateak, eta batik-bat beste aspirazio batzuk edukitzea

ahalbidetzen du. "Fibrazko traineru berria hemendik gutxira ekarriko degu, arraunlariek ilusio gehiago izango dute, eta honek dudarik gabe kirol emaitzak askoz hobegoak izatea ekarriko du".

Ia ba horrela gertatzen den, eta aspaldiko partez patrozinadore berriaren laguntzaz, denboraldi txukuna burutzen duten.

Estropaden egutegia

- 13an Pasai San Pedron
 - 20an Dalia Saria (Areeta)
 - 21ean DV Saria (Ligarako)
 - 25ean Koxtapen bandera
 - 28an Ligarako sailkapena (Orio)
 - 31ean Pasaiako Bandera
- Abuztuaren 1ean
ZUMAIAKO BANDERA



Hil honen 9an aurkeztu zuten patrozinadore berria.

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAI



Arratibel-Unanue txapeldun

San Pedrin saria berriz Otaño-Bilbao bikoteak eskuratu du

Ekainaren 28an jokatu ziren San Pedro pala txapelketako azken partiduak. **San Pedro sariko** finalean batez ere emozio handia izan genuen azkenerarte, eta estu izan bazen ere, Imanol Arratibel eta Iñaki Unanuek osatutako bikoteak Iñigo Alkorta eta Joseba Urbieta gainditu zituzten.

Begibistakoa da lau pilotari hauek izan direla erregularrenak txapelketa osoan zehar, eta merezimendu osoz lortu zutela finalean izatea. Ezin zaie inolaz ere ezer kendu,



Finaleko partaide guztiek hurrengo urterarteko atsedena izango dute.



Bilbao-Otaño bikotea, txapel eta guzti.

baina argi dagoena da, txapelketa hasieran beste bikote batzuk zirela faborito. Hauen artean, azkenean hirugarren postuan geratutako Gorostola-Aizpurua bikotea, denon buruetan zegoen txapelketa irabazteko faborito nagusitzat. Carballo-Ostolaza eta Uranga anaiek ere zerbait gehiago egin zezaketela ere ez dago dudarik, baina bidean geratu dira.

Lehen hiru postuetan zeintzuk geratu diren aipatu dugu; laugarrenean Ibon Moreno eta Antton Garikano geratu dira, hauek ere txapelketa bikaina burutuz.

San Pedrin sarian edo «Kopan», garaile Otaño-Bilbao izan dira finalean erraztasunez irabazi baitzioten Artetxe-Carballo bikoteari. Hirugarren tokian Grela-Ostolaza sailkatu dira, eta laugarrenean, aldiz, Alberto eta Josu Uranga. Guztiek ere txalo bero bat merezi dute.

Aipatu, Imanol Arratibel oikiarra aukeratu zela txapelketa osoko jokalaria onena. Bestalde, sari berezi bat egon zen Jesus Mari Unanuerentzat, Valentzian paletazko Espainiako Txapelketa lortu zuela 25 urte bete direlako oraintsu. ■

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA

Amaia Plaza 15
Tlf: 862458

Larrañaga Juanjo
BARAKINA

BASADI-RUSTEGUIA, 4-X ZUMAIATZ
TEL. 863001

HARTTEGIA
URDTTEGIA

ENTER
INFORMATICA

Baltasar Etxabe kalea z/g
Tlf: 861175 - Faxes: 860550

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etxezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefona: 862342

JOXE MANUEL

Orain astelehenetik ostegunera
KUPOI 150 pzta
BERRIAK!!

ONCE

JUSTA TABERNA
EGUNEROKO BAZKARIAK

Erribera kalea 20

Xabier Alzibar triatloiko lehen zumaiarra

Joan den ekainaren 15ean jokatu zen Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia 2. edizioa eta iazkoa bezain ikusgarria izan zen. Jose Maria Merchan izan zen Azkoitiako helmugan lehen postuan sartu zena eta bere atzetik Eneko Llanos helmugaratu zen, hain zuzen ere Zumaian igeriketa froga azkarren burutu zuena, 1.500 metro egiteko 16 minutu eta 24 segundo besterik ez baitzituen behar izan. Hirugarren postuan Felix Javier Martinez sartu zen.

Emakumezkoen artean, gizonetzkoetan bezelaxe, bi junior sartu ziren lehen bi postuetan, Miren Josune Kubero eta Amaia Bernal.

Aurtengoan iaz baino zumaiar gutxiago izan ziren partehartzaileen artean, eta guztietan aurrena sartu zena Xabier Alzibar izan genuen. Igeriketa froga egin ondoren arranplan azaldu zen lehena Erlantz Esteibar izan zen, baina bizikletan gehiegi behartu ondoren ezin izan zuen korrikako froga amaitu.

Xabierrek baino 4 minutu gehiago behar izan zituen Mikel Sasiainek eta Iñaki Aizpurua 2 minutu beranduago sartu zen.

Eguraldia primerakoa izan zen, baina beharbada 2 orduetik gora gelditu gabe ibili behar izan zutenentzat bero gehitxo egin zuen. Hurrengo urtera arte!



Xabier amaieran, gustora.

Sailkapenak

Gizonak

- 1.-Jose Maria Merchan....1.50.22
- 2.-Eneko Llanos.....1.55.23
- 3.-Felix Javier Martinez...1.46.14
- 4.-Etor Mendia.....1.58.18
- 5.-Xabier Gorrotxategi.....2.00.03
- 6.-Benito De Torres.....2.01.23
- 7.-Jesus De La Fuente.....2.01.42
- 8.-Karlos Baleztena.....2.02.10
- 9.-Imanol Etxeberria.....2.02.21
- 10.-Iñaki Etxeberria.....2.02.3

Zumaiarrak

- 47.-Xabier Alzibar.....2.15.53
- 63.-Mikel Sasiain.....2.19.23
- 77.-Iñaki Aizpurua.....2.21.26
- 98.-Ramon Egiguren.....2.25.20
- 130.-Mikel Yeregi.....2.35.52
- 140.-Juan Inazio Alkorta..2.39.44
- 162.-Oscar Castro.....2.59.07

Emakumeak

- 1.-Miren Yose Kubero...2.25.22
- 2.-Amaia Bernal.....2.25.41
- 3.-Dominique Leconte....2.30.57
- 4.-Susana Apraiz.....2.31.22
- 5.-Dina Bilbao.....2.36.28



Jende ugari hurbildu zen arranpla aldera, ikuskizuna ikustera.



goofy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA



Augustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430




Julio Curiel
PELOJERC
GIZONEZKOENTZAT
ILE-APAINDEGIA
Erribera kalea 23

Futbito txapelketa azken fasean sartuko da

Lehen fasea amaituta aurtengo futbito txapelketa bere punturik interesgarrienera heltzen ari da, eta hilaren 20an jadanik, final laurdenetan sartuko da.

Esan beharra dago, lehenengo kanporaketa honetan datu aipagarri bat baino gehiago eman dela. *Ederki Herri Biltokiak*, iaz Ligan azpitxapeldun izan genuenak, oraingo honetan Kopan dihardu. Honetaz gain *Everin* taldea kenduta, kanpoko talde guztiak Ligan daude. Bi multzotan banatuta dauden 10 taldetatik 4 bakarrik dira zumaiarrak.

Gizonezkoen azken fasea hil honen 22an hasiko da Kopa eta Ligako final laurdenekin. Bi egun



Nesken arteko lehiak ere politik izan dira orain artean.

beranduago final erdiak jokatuko dira eta uztailaren 26an finalak.

Faboritoen izenak aipatzeko orduan, Ligan *Euskalduna Aroztegia* aurreko urteko txapeldunak, *Txanela* zarauztarrak eta *Zalla Erretegia* dira aukera gehien izan ditzaketenak. Kopan berriz, *Duran-Duran* beterranoak eta lehen aipatutako *Ederki Herri Biltokia* dira faboritoak.

Baina mutiletaz gain, neskak ere parte hartzen ari dira futbito txapelketa honetan. Guztira zortzi ekipo daude: *Gatsby*, *Izenak?*, *H.P.*, eta *Akelarre* multzo batean; bestean berriz, *Estudio 96*, *Pub Txanela*, *Garoa* eta *Aimitxu*. Final aurrekoen ondoren, nesken finala gizonezkoen egun berean jokatuko da, Santio hurrengo egunean hain zuzen ere. ■



Trasonan izan zen zumaiarren taldea, kopa eta guzti.

Itxas-Gaineko piraguistak beti bezain indartsu

Herriko piraguistak emaitza oso onak lortu dituzte azkenaldian. Ekainaren 30ean, adibidez, estatu mailan oso ezaguna den Dueroko Jeitsieran lehen postua eskuratu zuten taldeka, gainontzeko 61 taldeei aurrea hartuz. Infantil mailako 8 partaidek, bestalde, Trasonan jokatutako Espainiako txapelketan hirugarren postua lortu zuten Euskadi ordezkatzuz. Zumaian 7an izan zen karreran ere lehen postu lortu zuten taldeka.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

Uztailan eta Abuztuan

zehar...

**Uztailak
12**

7etan kultur etxean, "Izarrei begira" hitzaldia eta gauean irteera.

**Uztailak
13**

Gaueko 10etan Mari kalean, San Pedro Abesbatza eta Zaharren Egoitzako abesbatzaren saioa.

**Uztailak
20**

Gaueko 9etan, parrokian, Julia Leonen kontzertua.

**Uztailak
24**

Gaueko 11etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Septeto Santiaguero talde kubatarraren saioa.

**Uztailak
27**

Gaueko 11etan Udal Musika Bandaren kontzertua



**Abuztuak
8**

*Euskal
jaia*



**Abuztuak
10**

Eusebio Gurrutxaga plazan, Galazko Berbena

**Inpernupe,
10. urtemuga**

Uztailak 19

Iluntzeko 9etan, elkartean, eskoba txapelketa. Izenematea, Inpernupe tabernan, 1000 pezeta ordainduz. Sari bikainak izango dira.

Uztailak 20

Iluntzeko 9etan, elkartean bazkideen arteko afaria. Afalondoan: bertsoak, musika tresnaz lagunduta. Txartelak Inpernupe tabernan salgai.

Abuztuak 12-26

**"Ahoz aho, belaunez
belaun" erakusketa
Forondan**

Abuztuan zehar, arte erakusketak izango dira Oxforden eta tabernetan. Tailerrak ere izango dira.



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefona: 861485
Fax: 143143

Galdona



burdindegia

Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330

20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Bertol Deunaren jaiak Oikian



Abuztuak 23, ostirala:
Oilasko biltzea.
IZADI taldearekin dantzaldia.

24, larunbata:
Meza hamaiketan.
Pilota partidua.
Bertsolariak: Iturriaga eta Sarasua.
Arratsaldean, herri kirolak:
Mugertza, Zelai, e.a.
HARITZA taldearekin dantzaldia.

25, igandea:
Meza.
Zaharrei omenaldia: dantzariak eta
bertsolariak (Lazkano eta Sebastian
Lizaso).
Herri kirolak (herriko gazteak).
ETZAKIT taldearekin dantzaldia.

27, asteartea: Haurren eguna
Goizean jolasak.
Arratsaldean pailazoak.
Etxabe anaiak trikitalariak.

28, asteazkena: Ezkonduen eguna
Herri kirolak: asto proba, e.a.
LOTXO taldearekin dantzaldia.

Zumaia-96

Abuztuko lehen bi astetan zehar izango dira lehen uda musikala izenaz ezagutzen ziren emanaldiak. Emanaldi guztiak gaueko 10etan hasiko dira:

- 1 San Pedro Abesbatza, Valentin Manterolari omenaldia.
- 2 Lucia Lakarra, Maria eta Josen. Bi egunotan
- 3 izango da.
- 4 Jazz emanaldia, Aita Mari Aretoan.
- 5 Petukhov pianistaren emanaldia Aita Marin.
- 6 Italian Piano Quartet (Aita Mari).
- 7 Zumaiaiko jaialdiko orkestra (Aita Mari).
- 8 "Work Shop" kontzertua (Aita Mari).
- 9 Miguel Ituarte pianojolea (Aita Mari).
- 10 Ganbara Musika. Beka emateko lehiaketa.
- 11 Jaialdiko orkestraren kontzertua Parrokian.

II. Baleike KOMIKI LEHIAKETA

Uztailaren 30ean amaituko da lehiaketa honetara lanak aurkezteko epea. Sari ederrak daude eta oinarriak biltzen dituen eskuprograma Forondan eskura dezakezu. Animatu zaitezte!!



ZALLA
Taberna - Erreteria
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387



Foto Amertze

Erribera kalea 6
Tel / faxa: 861707

E G U Z K I
PUB
KOKTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA



Una jaula de grillos (1996)

ZUZ.: Mike Nichols
AKT.: Robin Williams
Nathan Lane
Gene Hackman

Uda heldu da, eta honekin batera zineman ikusteko ditugun pelikulen mailak behera egin du. Pasa diguten zerrendan Richard Gere-ren lan berria -"Las dos caras de la verdad"-, Steven Seagal-en (aargh!) azken "pelikula" -"Decisión crítica"- eta Mike Nichols zuzendariaren azken filmea -"Una jaula de grillos"- aurkitzen ditugu. Zerbaiti buruz idaztekotan, azken hau aukeratu dugu, ez pelikula ona delako (txarra da), zuzendari hau orain dela urte batzuk arte interesgarria zelako baizik ("El graduado" filmearen zuzendaria da).

"Una jaula de grillos"-en kontatzen dena, homosexual bikote batek eta moralaren aldeko elkarte baten sortzaile eta errepublikar senatore baten arteko elkar topaketak dira, bikote horretako partaide baten semea senatorearen alabarekin ezkontzen baita. Hau kontatzeko betiko topikoak erabiltzen dira, eta nola ez, azken urteetan modan jarri diren "drag queen" delakoak ere azaltzen dira.

Aurretik esan dugun bezala, ezin esan "Una jaula de grillos" pelikula ona denik, baina besteak zein diren ikusi ondoren...

Zine kritikak

	EGIN	DV	Egunkaria
Una jaula de grillos Zuz: Mike Nichols	—	—	★
Decisión crítica Zuz: Stuart Baird	★	—	—
Pletorexia Zuz: Pello-Tolo-Xatur	Baleike	➔	★★★★

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza dezazue ahal dezun neurrian

Euskaraz

- Kalea *Gerry Adams*
- Pirineoak *Miguel Angulo*
- Manhattan *Edorta Jimenez*
- Lazkao Txiki *Joxe Miel Mendizabal*
- Arratsaldeko atoiuntzia *Yukio Mishima*
- Udarbe eta Urtuella lekuko *Luis Mari Mujika*
- Zeruko belardiak *John Steinbeck*

Gazteleraz

- La trilogía de Nueva York
- La cita
- Carreteras secundarias
- La cárcel del amor
- La costilla asada de Adán
- Ensayo sobre la ceguera
- Jardín de Villa Valeria



- Paul Auster*
- Justine Lévy*
- I. Martínez de Pisón*
- Luis Racionero*
- Carmen Rico Godoy*
- José Saramago*
- Manuel Vicent*

Gaztetxoentzat

- Udarako rocka *Margarida Aritzeta*
- Ez eskatu sardinarik sasoiz kanpo *M. Andreu*
- Adarbakoitzaren oinatza *Xabier Urzante*

Haurrentzat

- Pike eta Pitito *Xabier Agurrutza*
- Metak eta kometak *Joan Mari Irigoien*
- Eneko Okerrekoren akerra *J. Ormazabal*

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Abuztuko rock kontzertua 31ean izango da

Oraintxe ari da Gazte Batzordeko talde bat abuztuko kontzertuaren antolaketa lanetan. Taldeak lotu gabe badaude ere eguna gutxienez erabaki da (abuztuaren 31) eta lekua ere bai: Gernika parkea.

Su ta Gar-ekoak oporretan daudenez La Polla, Baldin Bada, Exkixu eta beste talde batzuekin ari dira hizketan. Ia kartel majo bat osatzen den!!

Herriko taldeak San Romualdotan



Herriko talde gehienek hartu zuten parte kontzertuan, Musika Eskolako ikasleekin batera. Gaueko sorpresarik atseginena HESTESUGARRAK izeneko taldeak eman zigun. Hori da kaña hori!!

maketa

EINBIGU



Bada musika mota bat derrigorrez bolumen altu batetan entzun beharra dagoena, etxe guztia hankaz gora jartzeko gai eta ez ulertzearen ondorioz gure senitartekoen haserre buruko min jasanezina bihurtzen duena. Bilbotik datorkigun azken maketa hau ez da atzean gelditzen aipatutako arau hauetan. Azkenaldian moda bihurtu den hardcore deritzon generazio berriko jarraitzaile sutsuak direla esan daiteke (Green Day, Offspring, Bad Religion...) dituzten kantu bizkor eta melodikoen erruz. Gure ikuspuntua ordea desberdina da. Gure ustez, Euskal Herriko musikari gogor gehienak bezala, 80ko hamarkadako punk mugimendu hark utzi zigun egiazko aztarnen lekuko biziak ditugu. Influentziak zer? Ba... bai, noski dituztela, gaur egun guztia nahasten baita nahi ta nahiez. Baina euskeraz abesten ari direla entzunez gero ez da eztabaidarako alerik geratzen, guztia aldatzen da, musika euskalduna da eta KITTO. Sei abestiz osatzen da, kantu melodiko eta eramankorretatik ("ahaztu gabe", "bilbotik", "non dago jaia") abiada handiko rock gogorrena ("entzun", "laster arte", "einbigu") burua harro dutela azalduz. Azken erantzun globala: "aski ona".

Santi (baxua), Olaba (ahotsa), Aritz (kitarra), Meni (kitarra) eta Gaizka (bateria) ditugu partaideen izenak, 1995eko azaroan grabatu zuten maketa Bilbo-Rock estudioetan eta kontaktua honako hau dugu: 94-4320481 eta 4128406.

IHINTZA
taberna

Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 85
Fax. 43 06 37

ZEMAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA



Motxian hi!

Nor: Axier Irigoien
Nola: Apa

-SUKALDARI ONA, ERDIPURDIKOA EDO ESKASA ZERA?

ERDIPURDIKOA.

-SUKALDARI ONA IZATEAREN SEKRETUA?

GAUZAK GOGO HANDIAREKIN ETA PAZIENTZI PIXKATEKIN EGITEA.

-ONDOEN IRTETZEN ZAIZUN PLATERRA?

GUSTOZ EGINDAKO GUZTIA ONDO IRTETZEN DA.

-FLOJO DABIL ETA, ZER PRESTATUKO ZENIOKE MIGEL INDURAINI?

GINDILLA PIXKAT, IA BIXITZEN DEN.

-NORI GUSTATUKO LITZAIZUKE BAZKARI GOXO BATEGITEA?

GUSTATZEN ZAIDAN NESKA BATI.

-ETA NORITXARRENA?

ROLDANI.

-ZERGATIK DIRA SUKALDARI EZAGUNENAK POTZOLOAK?

EZ DU ZERTAN POTZOLOA IZAN BEHARRIK.

-NON DAUDE HERRIKO PINTXO GOXOENAK?

DENAK ONAK, BAINA ZALLAKO TORTILLAK HOBERENAK, DUDARIK GABE.

-CINDY CRAWFORD DATOR ZURE JATETXERA, ETA "ENSALADA LIGHT" ESKATZEN DIZU. ZUK ZER ERANTZUNGO ZENIOKE?

ENTSALADA? HARAGI PIXKAT JANTZAN, BIHARRA DAUKAN ETA!

-MAYONESA, KETCHUP, MOSTAZA... "PEKATUAK" AL DIRA SUKALDARIARENTZAT?

NEURRIAN ERABILIZ GERO, EZ DAUKA PEKATUA IZAN BEHARRIK.

Kontu-kontari

TXAKURRAK LAPURRETAN

Gerraondoko garaian gosea zen nagusi. Semeak kanpora ezkontuta zituzten senar-emazte zahar bikote baten txakurrak egunero-egunero, denda batek ohostuta, patata haundi bat ahoan eramaten zien. Negua, horrela, ondo xamar pasata gero, udaberria iritsi zenean, bikote zahar hura onegia izan nonbait eta joan ziren dendara txakurrak zer egiten zuen esatera eta dena ezin bazuten ere zerbait ordainduko zutela, alegia. Dendariak. "ezta pentsatu ere! Tira, tira! Horixe bakarrik falta gendun!". Baina patata zaku irekia ez zuen gehiago inork ikusi atarian.

Bazen Goikotorrean beste txakur bat Pollollori boilo zuri bat kentzen ziona etxera eramateko. Baina behin ausartegia izan zen eta Alberto "Zinpollas" harakinari behi-muturrak ohostu eta bere etxera joanez bazter batean ezkutatu egin omen zen inork ez zezan ikusi. Albertok inozotik ez zuen ezer, susmoa hartu eta etxe hartara joanez. "Aizan hi! Zuen txakurrak muturrak ohostu zizkan!". "Baina Albertoooo! Gizonaa! Ez zak horrelakorik esan! Gure txakur gixajoak nola...". "Neska, ez zan hainbeste berriketa egin eta goazen ikustera non dagoen txakur bedeinkatu hori". Bai, hantxe aurkitu zuten muturrak ederki zaintzen.



CARLIN
OFIMARKET

FOTOKOPIAK ETA ENKOADERNAZIOAK.
PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN
OSAGARRIAK
Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
-24 orduetan
-Seure etxean
-Telef. 900-262628
-Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR
FOTOKOPIAK



Basadi 14, behea - Tf: 145120

KLASEAK

OHoko klaseak emango nituzke udako hilabeteetan. Nahi izanez gero, bakarka ere izan daitezke. Interesatuak deitu 860331 telefono zenbakira.

LANA

Neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke. Deitu lasai 861727 telefonora.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 860135 telefonora.

TXIKITINS AGURRAK

Txikitins!! Gazta earra zitxion!



Enekorr txikitins!!! Nun sartu dek eskua! Earra eman dik andriak sartaiakin buruan!! Hurrenguan kuidadin!

Moflirrr txikitins!! Ze foto ateatzen dituk! Andriak ez al dik lagatzen gero hola ibiltzeko? I kan demoring!!

Argoitirrr txikitins!! Ze iten dek egun osua itxasuai beira? Olatuik harrapatu al dek? Nahi al dituk portaleko giltzak?. 95.

Gatxinpun, txikitins!! Futbito txapelketako jokalaririk txarrena haiz. Hik ez dek gol bat sartzen....

Jefeerr txikitins!! Ke pasol! Xe iteek Uxurbilen?? Sagarnondoak zaitzen? Hi, sagarno eguna earki pasa huan!

Kevinrr txikitins!! Jo zak berriro... txapa. Hoiek dituk kaltzontzilluak!! Kuadrillako horterenak.

Laxarorr txikitins!! Ile ta tripa hoiekin Gascoigne emateek. Baino futbolian nere amona baino txarro haiz. La bijen!

Gasmitxrr txikitins!! Earrak Sanperminak pasa dizkiaunak!!

Beobideerr Txikitins!! Ze itek hor kabina barruan?

Wali txikitins!! Noiz hasi bihar dek meza ematen?

Salmenta puntuak

- JESUSKOA**
- ERROTA (ERRIBERA)**
- ERROTA (BASADI)**
- ERROTA (J.BELMONTE)**
- OGI BERRI (AMAIA)**
- OGI BERRI (BASADI)**
- ARKUPE OKINDEGIA**
- AIZPURUA LIBURUDENDA**
- OLANO LIBURUDENDA**
- LOITZ LIBURUDENDA**
- ALAI JANARIDENDA**
- NIKOL KAFETEGIA**
- INPERNUPE**
- ZALLA ERRETEGIA**
- FOTO GAR**
- ARROA BEHEA**
- SAN TELMO JANARIDENDA**

Lehiaketa Goxoa



Txapartegiren azken tartaren zozketa, Baleike TXOU!ra joan ziren guztien artean egin genuen. Bertan saritutako zenbakia **Narrea Osak** zeukan 185a izan zen eta beretzat izan zen hojaldrezko tarta erraldoia. Irailean berriz hasiko gera tarta goxo horiek zozketatzen, baina hil honetan, bost kamixeta dituzue jokoan. Ikusi kontraportada!!

xirula



TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

AHOLKULARITZA
JRZURE
ASESORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

Gure
txouan
parte
hartu
eta
lagundu
zenuten guztioi



ESKERRIK ASKO!!!

Baleike kamixetak!!



Berehala jarriko ditugu salgai udako kamixetarik politenak, mangamotzak eta tirantedunak, merke-merke.

Baina DEBALDE lortzeko aukera dezue, oporretan zaudeten tokitik (Zumaia bertatik ere bai) POSTALTXO BAT bidaltzen diguzuenon artean **5 kamixeta eder** zozketatuko ditugulako. Abuztuaren 22a baino lehen idatzi!!